


Euskara eta Literatura



Orientabide didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ATALAK

1. Dokumentuaren xedea
2. Euskara eta Literatura ikasgaiaren ezaugarriak
3. Euskara eta Literatura ikasgaiaren ekarpenak Oinarrizko Gaitasunak garatzen laguntzeko
4. Oinarrizko Gaitasunen eta Hizkuntzen curriculumeko atalen arteko lotura
5. Orientabide didaktikoak
 - 5.1. Metodologia
 - 5.2. Irakaslearen eta ikaslearen eginkizunak
 - 5.3. Ikastaldearen kudeaketa
 - 5.4. Denboraren eta tokiaren kudeaketa
 - 5.5. Baliabideak eta materialak
 - 5.6. Ikasgelako jardueren antolaketa
 - 5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak
 - 5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: Ahozkoaren ulermena
 - 5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: Ahozko adierazpena
 - 5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: Interakzioa
 - 5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: Irakurriaren ulermena
 - 5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: Idazmena
 - 5.13. Literatura-Hezkuntza
 - 5.14. Ebaluazioa
6. Baliabide didaktiko hautatuak
7. Bibliografia gomendatua

1. DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honek Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura ikasgairako orientabide didaktikoak biltzen ditu.

Orientabideok Euskara eta Literaturaren ikaste-irakaste prozesuak antolatzen laguntzeko helburua dute Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzen curriculumean jasotako planteamenduen arabera. Beraz, ikasgaiaren helburu orokorrak lortzera zein Oinarrizko Gaitasunak garatzera bideratuta daude.

Testu honek bere egiten ditu ikaskuntza aktiboaren printzipioak; horien arabera ikaskuntza-irakaskuntzen prozesuaren metodologia-aldagaiak aztertuko dira orientabide didaktiko hauetan.

2. EUSKARA ETA LITERATURA IKASGAIAREN EZAUGARRIAK

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzea da, jakintza-, afektibitate- eta gizarte-gaietan. Garapen horren oinarrizko osagaiak hizkuntza- eta literatura-hezkuntza dira; hain zuzen, bi osagai horiekin, gizartean nahiz norbanakoan lantzen diren jardueretako hainbat esparrutan hizkuntza erabiltzeko ahalmena adierazi nahi da.

Hizkuntza funtsezko alderdia da giza garapenerako, eta, gainera, funtzio bikoitza du: norbanakoaren garapena eta gizarte-garapena. Norbanakoaren garapena: pertsona bakoitzari pentsatzeko, ezagutza aldatzeko, bere jardura bereziak arautzeko eta adierazteko ahalmena ematen diolako. Gizarte-garapena: hizkuntzak gizartearen bidez transmititzeaz eta gordetzeaz gainera, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duten jardura baten inguruan eraikitzen eta garatzen direlako. Hizkuntza da, hain zuzen, kultura sortzeko, horren oinarriak ezartzeko eta transmititzeko tresna. Lotura zuzena du pertsonen bizitza afektiboarekin eta kognitiboarekin, eta, gainera, sentimenduen erregulatzailerik eta ikaskuntza ororen (bizitzakoak nahiz akademikoak) bitarteko nagusi da; izan ere, esperientziak, hitzen bidez adierazi ondoren, aldatu eta beste maila bat hartzen du. Hori dela eta, hizkuntza bat ondo jakiteak tresna egokiak edukitzea dakar norbanakoaren barnera hobeto hurbiltzeko, gainerakoekin harremanetan jartzeko, elkarbizitza arautzeko, besteekin lankidetzan aritzeko eta baita modu kritikoan eta autonomoan ikasteko ere.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzen helbururik behinena hizkuntza-komunikazioren garapena da, hau da, hizkuntzaren inguruko ezagutza eta erabilera prozedurak garatzea gizarte eremu desberdinetan eraginkor jarduteko. Beraz, Euskara eta Literatura ikasgaiaren ardatz nagusia komunikazio testuinguru desberdinetan hitz egiteko, idazteko, irakurtzeko eta entzuteko trebetasunen eta estrategien garapena da.

Oso kontuan izan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen bi hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa desberdina izan arren, hizkuntza ofizial bien garapen bera bermatu behar dela. Hartara, ikastetxeek beren egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, bi hizkuntza ofizialetan jatorrizko eta garapenezko ezagutza nahiz kompetentzia mailak alderatu beharko lituzkete, hizkuntzen egoera orekatzeko.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntzaren beste helburu nagusietako bat ikasle eleanitzak lortzea da. Horrek hizkuntza irakasleak Hizkuntzen Tratatua Bateratua planteatzera behartzen ditu. Izan ere, hizkuntzak modu bateratuan irakastea ondoko arrazoi hauen ondorio da: batetik, hiztun elebidunak edo eleanitzak dakizkien hizkuntzen bidez lortutako ezagutzak ditu bere kognitio- eta emozio-dotazio gisa; bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak transferitu egiten dira; eta hirugarrenik, hainbat hizkuntza egon ohi dira aldi berean hiztunek parte hartzen duten hizkuntzaren erabilera eremuetan. Egiaztapen horien arabera, beraz, hizkuntza bakoitzak dituen ezaugarri bereziak landu beharko dira eta bateragarriak eta transferigarriak direnak hizkuntza guztien artean banatu.

Hizkuntzen curriculum bateratua planteatzeak hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzei lotutako ondoko printzipio hauek onartzea dakar:

- Erabilera; izan ere, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoen bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.
- Ikuspegi komunikatiboa, hau da, ikasgelak askotariko komunikazio trukeetan ikasleen parte-hartze eraginkorra ahalbidetuko duten komunikazio gune pribilegiatu bihurtu behar dira.
- Hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak sustatzea, hizkuntzek gizarte harremanetan eta norbanakoaren emozioen garapenean duten garrantzia aintzat hartzeko
- Inklusioa, hau da, ikasle guztiei, edozein delarik beren jatorrizko hizkuntza, hizkuntz gaitasun eleanitza garatzeko aukera eman behar zaie.

Hartara, behar-beharrezkoa da komunikazio-proiektu esanguratsuak eta helburu zehatza dutenak gauzatzera bideraturako ikaskuntza-prozesua proposatzea eta horri lotutako ikuspegi metodologikoa ezartzea; ikuspegi komunikatiboa, hain zuzen ere. Horren arabera, testua da oinarrizko komunikazio-unitatea, hainbat testu-tipo eta testu-generotan sailkatua, eta ikaskuntza egituratuko da helburu komunikatibo zehatz bat lortzera bideratutako sekuentzia didaktikoen bidez. Horietan, 'egiten jakitea' 'jakite' hutsari gailenduko zaio. Ezaugarri horiek garatzen dira orientabide didaktiko hauetan.

Hizkuntzen curriculumetik hartua

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_2010/basica_refundido_2010/1_04_lmh_e.pdf

3. EUSKARA ETA LITERATURA IKASGAIAREN EKARPENAK OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEN LAGUNTZEKO

Ikasgai honek Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenari egiten dion ageriko ekarpenaz gain, beste Oinarrizko Gaitasunen garapenari ere laguntzen dio. Baina zer egin daiteke Euskara eta Literatura ikasgaien beste Oinarrizko Gaitasunak garatzen laguntzeko?

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Hizkuntza alorrek zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari laguntzen dio munduaren interpretazioa, mezuen analisia, bizimodu desberdinen kausa eta ondorioen arteko argudiatze arrazoituak lantzen eta ezagutzaren esparru anitzekin lotutako testuak ahozkoak eta idatzizkoak erabiltzen direnean. Ikasleekin interesgarri izan litezkeen osasun, kontsumo, zientzia eta teknologia gaien inguruan lan egiteak ere gaitasun honen garapenari laguntzen dio.

Gaitasun hau garatzeko ondokoak proposatu daitezke:

- Baliabide naturalen zentzuzko erabilerari eta osasunari lotutako gaien inguruko lan-proiektuak.
- Zientzia-azalpenak eta eztabaidak entzutea.
- Zientzia- eta teknologia-kulturari lotutako testu-generoak lantzea.
- ...

Ikasten ikasteko gaitasuna

Hizkuntza komunikazio-tresna izateaz gain, mundua irudikatzeko tresna pribilegiatua da eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Beraz, hizkuntzaren bidez ezagutzak eskuratzea eta eraikitzea oso lotuta dago Ikasten ikasteko oinarrizko gaitasunari.

Gaitasun hau garatzen laguntzeko honelako jarduerak proposatu daitezke:

- Ikaskuntza helburuak zehaztea sekuentzia edo unitate didaktikoen hasieran.
- Ikasitakoaren inguruko berrikusketak.
- Ikaskuntzan erabili diren estrategien inguruko hausnarketa jarduerak.
- ...

Matematikarako gaitasuna

Matematikari lotutako alderdiak hizkuntza alorrean txertatzen dira testu ez-jarraiak (grafikoak, eskalak, portzentajeak ...) ulertu eta interpretatzean. Horretaz gain, datuak, informazioak eta argudioak, arrazoiketa logikoari atxikirik, esaterako, zehatz interpretatu eta adieraztean, pentsaera abstraktuari eta matematikari lotutako trebetasunak lantzen dira.

Gaitasun honen garapenari lagundu ahal zaio ondokoak proposatuz:

- Grafikoak dituzten testuen inguruko jarduerak .
- Matematika edukiak gaitzat duten proiektuak.
- Testu-genero desberdinen analisisian eta ekoizpenean estatistikari lotutako datuak erabiltzea.
- ...

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Hizkuntza erabiltzen ikastea arazoak aztertzen eta konpontzen ikastea ere bada, egitekoak zehazteko eta erabakiak hartzeko, komunikazio-egoera bakoitzak behar dituen estrategiak erabiliz; izan ere, hizkuntzaren eginkizunetako bat norberaren jarduera antolatzea eta bideratzea da. Horregatik, hizkuntza-trebetasunen garapenak norberaren ekimenaren garapenari eta gero eta autonomia handiagoz gauzatu behar den jardueraren erregulazioari laguntzen die.

Gaitasun honen garapena bultzatzeko ondokoak proposatu daitezke:

- Auto-erregulazio mekanismoak abiaraziko dituzten lan-proiektuak programatzea.
- Auto-ebaluazio eta ko-ebaluazio jarduerak egitea, lortutako helburuez eta egindako akatsez hausnartu ahal izateko.
- Ikasleen estiloak, interesak, zaletasunak ... kontuan hartzea.
- ...

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Euskara eta Literatura ikasgaien informazio iturri anitzak eta euskarri desberdinetan erabili behar dituzte ikasleek; beraz estrategiak irakatsi behar zaizkie informazioa biltzeko, informazio-iturri askotara jotzeko, iritzi kritikoz hautatzeko, interpretatzeko eta etikaz erabiltzeko.

Bestalde, teknologia digitalaren bilakaerak ikasgelara eraman behar diren beste komunikazio-bide berriak plazaratu ditu. Komunikazio errealerako aukerak ugaltu egin dira, beste hizkuntzekiko eta kulturekiko erlazioak ahalbidetuz eta irakurketaren eta idazketaren gizarte erabilerak bultzatuz; horrela, denen artean ezagutza eraiki ahal izateko.

Gaitasun hau garatzeko ondokoak proposatu daitezke:

- Web 2.0ren aukerak baliatzea hizkuntzari lotutako lana bideratzeko.
- Internet erabiltzea informazioa bilatzeko, hautatzeko, berrantolatze eta jakinarazteko.
- Ikasgelan testu multimedialak erabiltzea.
- ...

Giza- eta arte-kulturarako gaitasuna

Literatura lanak entzutea, irakurtzea, interpretatu eta balioestea gaitasun honen garapenerako funtsezko egitekoak dira. Arte adierazpen desberdinak elkarrekin erlazionatu behar dira eta ulermen kritikoren bidez beraien elementu inplizitu eta esplizituak nabarmendu.

Gaitasun hau garatzeko ondokoak proposatu daitezke:

- Kultura eta arte errealtateak ikasleengana hurbiltzeko jarduerak.
- Literatura ulertu eta interpretatzeko tertulioak, sormen-talderak eta talde interaktibo bidezko lana, non pertsona helduek ikasleekin batera interakzioan jardungo duten, interpretazio lanean laguntze aldera.
- Ahozko literaturaren testuak entzuteko jarduerak, gure errealtate kultural eta artistikoa balioesteko.
- Historia-, arte-, hiri- ibilbideak eta bidaiak egitea eta museoetara eta erakusketetara joatea....
- ...

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Gaitasun hau garatu daiteke gizarte errealtateari eta ikasleen intereseko gaien inguruko proiektuak proposatuz, bai eta munduan diren gatazken eta gai unibertsalen inguruan hausnartuz ere; horietako gai asko testu literarioetan ageri dira. Halaber, gizarte abilezien garapena bultzatu eta sustatu behar da gelan (gizarte komunikazioko arauak, lankidetzan aritzekoak) eta hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak. Bestalde, gaitasun honi laguntzen dio munduaren eta ohituren aurreiritzi eta irudi estereotipatuak eta hizkuntzaren erabilera baztertzailak hizkuntzaren bidez nola transmititzen eta onartzen diren aztertzeak, horiek guztiak saihestu ahal izateko.

Gaitasun hau garatzeko ondokoak egin daitezke:

- Gizarte gaien eta gaurkotetasuna dutenen inguruko proiektuak proposatzea.
- Ikasgelan interakzioa erabiltzea eta ikasleekin negoziatzea, ikaskuntzarako estrategia gisa.

- Gizarte komunikazio arauak errespetatuz komunikazio trukeetan parte hartzea, hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak sustatze aldera, batez ere, hizkuntza gutxituen kasuan.
- ...

4. OINARRIZKO GAITASUNEN ETA CURRICULUMENKO ELEMENTUEN ARTEKO LOTURA

Oinarrizko Gaitasunak curriculumeko osagai guztietan islatzen dira: helburuetan, edukietan eta ebaluazio-irizpideetan. Euskara eta Literatura ikasgaiaren helburu orokorrak gaitasun gisa daude zehaztuak eta adieraziak.

Helburuetan Oinarrizko Gaitasunak antzeman daitezke, ondoko taulan grafikoki ikusten den bezala.

	Zientzia- teknologia-eta ikasien ikasketako gaitasuna	Matematikarako gaitasuna	Hizkuntza- komunikaziorako	Informazioa tratatzeko eta	Gizarterako eta herriartasunerako	Giza eta arte- kulturalako	Norberaren autonmiarako
1. Hizkuntza erabiltzeko eremu desberdinetatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.							
2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta elkarrekintzan jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia desberdinei eraginkortasunez erantzuteko.							
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskararen erabilera arrunta bermatzeko.							
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleantzasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa baloratuko da.							
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza estereotipoak saihestuko dira.							
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntza desberdinen sistemari buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.							
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.							

8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.							
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.							
10. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturak eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraihi ahal izango da.							
11. Testu eredugarriak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.							

Ondoko koadroak, berriz, Oinarrizko Gaitasunen eta curriculumeko ebaluazio-irizpideen eta helburu orokorren arteko erlazioa islatzen du. Adibide gisa, DBH1eko 1., 13., 14., eta 15. ebaluazio-irizpideen, ikasgaiaren lehenengo helburuaren eta horien bidez garatuko diren Oinarrizko Gaitasunen arteko erlazioa adierazten da.

DBH1

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK	IKASGAIAREN HELBURUAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarteremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. Horrela, ikaskuntza- zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak hautemateaz gainera, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.</p> <p>13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko</p> <p>14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (auto-ebaluazioa eta ko-ebaluazioa) parte-hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea</p> <p>15. Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetakako testu zatiak ulertzea.</p>	<p>1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p>	<p>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna</p> <p>Giza- eta arte-kulturarako gaitasuna</p> <p>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</p> <p>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</p>

5. ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

5.1. Metodologia

Zein da ikuspegi metodologiko egokiena ikasgai honetan?

Ikuspegi komunikatiboa. Hizkuntza erabiltzen ikasi eta irakasteko ikaskuntza aktiboa behar da, ikasleak prestatuko dituen izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta, batez ere, ezagutzak aplikatzen jakin dezaten. Beraz, hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzen parametroak aldatu behar dira eta hizkuntzaren deskripzioaren eta ezagutzen transmisio eta jasotze hutsaren planteamendu didaktikoetatik beste planteamendu metodologiko batera lerratu, ikuspegi komunikatibora, hain zuzen ere.

Zergatik eta zertarako ikuspegi komunikatiboa?

Hizkuntza komunikazio eta irudikapen tresna delako eta ikasleek komunikazio gaitasuna garatuko badute, hizkuntza erabili egin behar dutelako. Horretarako, ikasleek beren komunikazio beharretan oinarrituta, eta testuinguru baten barruan, entzun, idatzi, hitz egin, solasean aritu eta irakurri egin behar dute.


Hartara, ahozko eta idatzizko testu errealak, hizkuntzaren hainbat erabilera eremutakoak, ulertzea, interpretatzea eta ekoiztea izango da ikaste prozesuaren ardatza, prozesu horretan hizkuntzaren gaineko hausnarketa txertatuko delarik.

Kontuan hartu behar da komunikazioa ez dela, soil-soilik, ahozko eta idatzizko testuen ekoizpena mugatzen, baizik eta prozesua ere bereganatzen duela; helburu zehatz bat duen prozesua, hain zuzen ere. Eta prozesuari lotuta, ez da nahikoa ikasleek hizkuntzari buruzko datu solteak bereganatzea –lexikoa, arauak, funtzioak...- Ezinbestekoa da ezagutza horiek gogoetaren bidez prozesuan txertatzea eta erabiltzen ikastea.

- Hizkuntzaren erabilerak eragiten du ikaskuntza.
- Ikasleen komunikazio beharrak, interesak eta motibazioa dira ikaskuntzaren bultzatzaileak.
- Hizkuntzaren ikaskuntza ikasleak eraiki behar duen prozesua da.

Horrek guztiak ataza errealak abiapuntutzat hartzea eta hizkuntzaren gaineko hausnarketa atazaren helburuaren menpe jartzea eskatzen du, xede komunikatibo erreal eta funtzionalei erantzuteko.

Ikuspegi metodologiko honek erabateko eragina izango du hainbat esparrutan, besteak beste, ikasgelaren dinamikan, helburuen formulazioan, material didaktikoaren hautaketan... Beraz, oso kontuan hartu behar dira beheko grafikoan adierazi eta hurrengo puntuetan azalduko diren aldagaiak.



5.2. Irakaslearen eta ikasleen eginkizunak

Zeintzuk dira irakaslearen egitekoak?

-Ikasleen laguntzaile eta gidari izatea.

Egun, Informazioaren Gizartean bizi garelarik, irakaslearen egitekoa aldatu egin da eta ezagutzaren transmisio egile eta azalpen emaile hutsa eta bakarra izatetik ikasleen ikaste prozesuan laguntzaile eta gidari bihurtu da.

-Ikasleek burutu ditzaketen erronkak planteatu eta egitekoa horien arabera planifikatzea.

Irakasleak hautatzen, planifikatzen eta proposatzen ditu edukiak. Berak du ikasleen ikaskuntzaren eta egiteko hori bideratzeko prozesuaren erantzukizuna. Ikuspegi komunikatiboaren arabera, gaitasunak garatzen laguntzeko, irakasleak ikaskuntza egoera irekiak abiarazi behar ditu, ikasleen interesak, arazoak eta zalantzak kontuan harturik eta burutu ditzaketen erronkak planteatu, arazo-egoerak bilatu eta ebazteko prozesuen bidez.

-Ikasleen gaitasunen eta ahalmenen araberako prozesuen kontrola ziurtatzea.

Irakaslea da ikaskuntza prozesuak ikastaldearen gaitasunen eta ahalmenen arabera erregulatzen dituena; beraz, ikasleen heterogenotasunaz eta aniztasunaz kontziente izan behar du eta bere praktikan islatu; ikasle guztiei aukera emanez proposatutako helburuak erdiesteko, beti ikasle bakoitzarengandik ahal denik eta etekinik handiena lortzen ahaleginduko delarik.

-Ikasleekiko komunikazio bideak ahalbidetzea.

Ez da ahaztu behar ikasgelan sortzen diren harremanek, ikasleek elkarrekin eta irakaslearekin, eragina dutela komunikazioan eta ezartzen diren lotura afektiboetan.

Horien arabera sortuko da lankidetzarako eta elkarbizitzarako giro aproposa. Ikasleen jarrera aktiboa mesedetzeko, irakasleak ikasleen partaidetza bultzatu behar du, giro afektibo eta motibagarria sortzeaz gain, ikasgelan interakzioa eta komunikazioa sustatuko duten egoerak ahalbidetzeko.

-Ikasleen autonomia eta auto-erregulazioa bultzatzea.

Ikasleei lagundu behar die autonomiaren eta auto-erregulazioaren bidetik eta, bestek beste, beraiekin negoziatu, komunikaziorako eta ikaskuntzarako tekniketari trebatu eta ikasleak ebaluazioan inplikatu auto-ebaluazioaren eta koebaluazioaren bidez.

-Ikasleentzat eredu eta erreferentzia dela kontuan izatea.

Irakaslea hizkuntza-eredu da ikasleentzat, eta beraz, hizkuntza egokia, jatorra, zuzena eta aberatsa erabili behar du. Horretaz gain, kontuan hartu behar da euskararen gizarte presentzia urriaenez irakaslearen hizkuntza-eredua dela ikasleen erreferentzia nagusia.

Halaber, irakaslearen jarduteko erak, hizkuntzarekiko jarrerak eta jokabideak ikasleen hizkuntzaren ikaskuntza- edo bereganatze-egoerari eragiten diote; izan ere, gelan ikusi, bizi eta sentitutakoa eredu gisa erabil ditzakete ikasleek etorkizunean hizkuntza erabiltzean edo irakasle gisa jardutean.

-Hizkuntzarekiko jarrera positiboak sustatzea.

Hizkuntzarekiko jarrerak eragina du hizkuntza-portaeran eta hizkuntza-erabileran. Beraz, ikasleen motibazioan eta interesean eragiteko eta ikasleek egoera errealean eta eskola esparrutik kanpo euskara erabil dezaten jarrerak duen garrantziaz konturatu behar da eta ikasleen hizkuntza-jarrerak modu sistematikoan landu.

Zeintzuk dira ikaslearen egitekoak?

-Hizkuntza erabiltzea eta erabileraren inguruan gogoeta egitea.

Ikasleek hizkuntza erabili egin behar dute; hau da, irakurri, entzun, idatzi, hitz egin eta elkarrizketan arituko dira eta erabilera horren gainean hizkuntzari lotutako gogoeta egingo.

-Hizkuntzarekiko jarrera positiboetatik abiatzea hizkuntza erabiltzeko motibazioa eta interesa izateko.

Hizkuntza erabiltzen ikastea estu lotuta dago ikasleen motibazioarekin eta interesarekin. Aldi berean, hizkuntzarekiko jarrera positiboak funtsezkoak dira motibazioa eta interesa bultzatzeko.

-Hizkuntzaren ikaskuntzan ardura hartzea eta gero eta autonomoagoa izatea.

Ikaslea da bere ikaste prozesuaren protagonista nagusia; izan ere, bera da bere ikaskuntza eraikitzen duena irakasleak ematen dion laguntza eta gidaritzaren bidez.

Horrexegatik, ikasleak bere ikaste prozesuaren ardura hartu eta helburu, behar, gaitasun eta abarren arabera prozesua erregulatzen ikasi behar du, auto-erregulazioa ikasten ikasteko funtsezko alderdia baita. Ikasten dakien ikasleak egitekoa helburu baten arabera planifikatzen eta akatsak, zailtasunak eta hobetu behar dituen alderdiak identifikatzen daki. Gainera, ikerketek erakutsi duten moduan, ikasten ari dela jabetzeak ikaste-prozesuaren motibazioan eragin zuzena dauka.

Beraz, autonomiaz jokatzeko, ondokoak egiten ikasi behar du ikasleak:

- Egitekoaren xedea, hau da, zertarakoa, zehazten. Negoziazio eta motibazio jarduerak laguntzen dute egiteko horretan.
- Helburua lortzeko egitekoa planifikatzen eta antolatzen. Horretarako, kontratu didaktikoa, talde lana planifikatzeko orriak... erabil daitezke.
- Horretaz gain, prozesua ondo gauzatzen ari den ala ez jakiteko irizpideak identifikatzen, auto-erregulaziorako proposamenen bidez. Horretarako, lagungarriak dira kontrol orriak eta auto-ebaluazio zein koebaluazio txantiloiak.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
<input type="checkbox"/> Gertaerak modu adierazkorrean kontatzen. <input type="checkbox"/> Ahozko narrazioen ezaugarriak. <input type="checkbox"/> Irrati-kronika taldeka ematen. <input type="checkbox"/> Grabazioak egiten.	<input type="checkbox"/> Testuak (idatziak eta ahozkoak) aztertu eta ozeriki irakurri. <input type="checkbox"/> Testuak ikaskideei kontatu. <input type="checkbox"/> Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei. <input type="checkbox"/> Grabazioak egin. <input type="checkbox"/> Grabazioak berrikusi eta zuzendu, baita ikaskideenak ere. <input type="checkbox"/> Taldeka eztabaidatu, ados jartzeko.	<input type="checkbox"/> Auto-ebaluazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Ikaskideen ebaluazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Egingo dugun grabazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Probatxo baten bidez JARRERA KONTUAN HARTUZ <input type="checkbox"/> Parte-hartze aktiboaren bidez <input type="checkbox"/> Talde-lanetan kideak Errespetatuz <input type="checkbox"/> ...

Sekuentzia honetan hauxe egingo dugu:

KONTRATUA:
 Ondokoak dira nik eta nire taldekoek sekuentzia honetan egingo ditugunak:

Kontratu honetan adierazitakoa beteko dudala adierazten dut. Horretarako, sinatu egiten dut nire taldekideekin batera.

Tokia eta data:
 Irakaslearen sinadura Ikasleen sinadurak:

Negoziazio jarduera eta kontratu didaktikoa

5.3. Ikastaldearen kudeaketa

Nola kudeatu ikastaldea?

Hizkuntzak erabileraren bidez eraikitzen dira, besteekin solasean, entzuten, hitz egiten, irakurtzen eta idazten. Horrenbestez, ikastaldearen kudeaketak bost trebezia horiek garatzea ahalbidetu behar die ikasleei.

Irakaskuntza aktiboak irakaslearen eta ikasleen arteko komunikazioa bultzatu behar duenez, horrek gelaren dinamika aldatzea dakar; beraz, taldekatze mota desberdinak eta ikasleen esku-hartzeak erraztuko dituen antolamendua behar da.

Ikastaldearen kudeaketari dagokionez, ikaskuntza aktiboa sustatzeko eta hizkuntzen erabiltzera hobetzeko ondokoak izan behar dira kontuan:

- Ikasgelan giro egokia sortzea, ikasleen artean giro afektibo aproposa lortzeko eta kortesia arauak zaintzeko. Giza harreman eraginkorrak izateko ezinbestekoak diren gizarte-komunikazio arauak landu behar dira hizkuntza ikasgeletan: hitz egiteko txandak antolatu, bestek esandakoa onartu, doinu egokia zaindu....
- Hizkuntzak ikasteko zein erabiltzeko motibazioa bultzatzea: helburuak jakinaraztea, lana gauzatzeko negoziatio jarduerak proposatzea, ikasleei hitza ematea... eta, batez ere, ikasgelan proposatzen diren jarduerak benetako komunikazio xedea izatea.
- Norberaren hizkuntzarekiko errespetua bultzatzea. Egoera eleanitzetan hizkuntza propioa balioestea beste hizkuntzak ikasteko abiapuntua da. Hitzuna berak darabilen hizkuntza aldaerarekin, geografikoa nahiz soziala, identifikatu ohi da. Horregatik, ezinbestekoa da norberaren hizkuntzaren aldaera balioestea beste erabilera batzuk formalagoak edo besterik gabe, desberdinak, erabiltzen ikasteko.

- Hizkuntzak ikasi edo erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleekiko errespetu giroa sortzea. Ikasle guztiak eroso sentitu behar dira hizkuntza guztien aurrean erabiltzeko.
- Taldekatze mota desberdinak antolatzea. Jardueren arabera eta ikasleen ezaugarriak kontuan izanik, talde heterogeneoak eta aldakorrak bultzatu behar dira.
- Ikaskuntza autonomoari laguntzea eta, beraz, transmisio hutsezko ikaskuntza mugatzea, irakasle-ikasleen ohiko eginkizunak aldatzea...
- Ikaskuntzari lotutako itxaropena sustatzea: ikasle guztiek hizkuntza ondo erabiltzen ikasiko dutelako itxaropena izatea eta bultzatzea, planteatutako erronkei denek erantzun ahal izango dietela transmititzea ...

5.4. Denboraren eta tokiaren kudeaketa

Nola antolatu lekua eta denbora?

Denboraren banaketak eta lekuaren antolaketak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen garapenari lagundu behar diote. Eskola esparruko elementu desberdinak egituratzeko beharrezanetik sortzen da denbora eta espazioa osotasun gisa antolatzea. Horregatik, antolakuntza egiturak malgutu egin behar dira didaktikari lotutako estrategiei lekua emateko. Denbora eta toki antolatu ahal izateko, ikastetxeek autonomiaz jokatzeko aukerak behar dituzte.

Garrantzitsua da denboraren antolaketa?

Alor guztietan denboraren kudeaketa garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa hizkuntza alorrean; izan ere, hizkuntzak ikasteko ezinbestekoa da denbora. Luzaroan garatzen den prozesua da, astiro, eta ikastetxe barruan zein kanpoan eraikitzen da.

Ordutegia antolatzean, beraz, ondokoak izan behar dira kontuan:

- Irakurketari, bereziki, denbora ematea, egunero, euskaraz zein gaztelaniaz, eta ikasleen ordutegietan islatzea.
- Euskara eta gaztelaniaren ordutegiak bateragarriak egitea. Proiektuen eta jardueren arabera, zenbaitetan, bi ikasgaien orduak batzeko aukera ere planteatu daiteke edota saio bikoitzak, partekatuak ...
- Denboraren antolaketan malgutasuna kontuan izatea, eta batzuetan saioen iraupena aldatzea.

Bestalde, eskola saioak antolatzean, besteak beste, ondokoak hartu beharko lirateke kontuan:

- Ikasleei hizkuntza erabiltzeko denbora ematea. Hizkuntzaren erabilera lantzen ari dira, beraiek dira ikasten ari direnak; beraz, irakasleak ezin du saioen denbora xahutu azalpenak emanez.
- Jarduera anitzak egiteko denbora ematea: elkarrizketak, eztabaidak, aurkezpenak...
- Denbora antolatu eta banatzea hizkuntza-trebetasunak landu eta horiei lotutako jarduera anitzak gauzatu ahal izateko: ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko,

ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko, hizkuntzaren gaineko hausnarketa gauzatzeko...

- Denbora ondo kudeatzeari garrantzia ematea eta, adibidez, txandaka, denei parte-hartzeko aukera ematea.

Garrantzitsua da lekuaren antolaketa?

Tokiaren antolaketa dinamikoa, malgua, aldatzeko aukerak ematen dituen izan behar da talde-harremanak sustatzeko (banaka, taldeka, elementu mugikorrak ...).

Ikasgelaren erabilerari dagokionez, hizkuntzen gela antolatu beharko litzateke eta bertan ikasgaia lantzeko materialak, hiztegiak, gelako liburutegia, ikus-entzunezkoak, multimediak... eskuragarri izan.

Ikasgelaren estetikari lotuta, bestalde, ikasleen ekoizpenak ere agerian jarri beharko lirateke eta ikasgela ekoizpen horiekin hornitu, partaidetza eta taldearen kohesio gune bihurtzeko.

Beste gune batzuen erabilerari dagokionez, berriz, kontuan hartu behar da hizkuntzaren ikaskuntza ez dela gelan bukatzen, horregatik ondokoak hartu beharko dira kontuan:

- Ikastetxe barneko eta ikasgelatik kanpoko espazioak erabiltzea, esaterako, beste ikasgelak, liburutegia, ordenagailuak, aretoak ...
- Ikastetxetik kanpoko espazioak erabiltzea, ikasitakoaren funtzionaltasuna sustatzeko; ikasgaien arteko erlazioak bultzatuko direlarik eta proiektu globalak proposatuko.

5.5. Baliabideak eta materialak

Hizkuntza saioetan erabiliko diren baliabideak 'hizkuntzen gelan', denek partekatu eta erabiliko dituzten guneetan (liburutegia, informatika gela...) edota ikasgelan bildu daitezke; baina, nolatan ere, ikasleen komunikazio-beharren arabera bilduta eta antolatuta egon behar dute, egungo IKT baliabideek eskaintzen dituzten aukera anitzak ere kontuan harturik.

Halaber, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntza jakin bati eta berari soilik dagozkion baliabideak (hiztegiak, hiztegi etimologikoak, estilo liburuak ...) eta zein hizkuntza batean baino gehiagotan erabil daitezkeenak. Baina, beti, baliabide guztien aniztasuna, bai kopuruz bai kalitatez, ziurtatu behar da. Internet, bestalde, baliabide anitzen eta eguneratuen iturria da.

Ikasgelako liburutegiak eta ikastetxekoak kontsulta material ugari eduki behar dute, eta, batez ere, ikasgelan dauden hizkuntzetan idatzitako liburuak, ikasleen zaletasun eta interesak aintzat harturik; kalitatea, aniztasuna eta egokitasuna irizpide. Bestalde, aldiro argitaratzen diren testuak, eguneroko prentsa eta prentsa digitala ere edukitzea komeni da.

Ikasgeletan tresna egokiak egon behar dira ahozko eta idatzizko testuak entzuteko eta ikustarazteko eta horretaz gain, informazio iturriak kontsultatzeko, informazioak eskuratzeko ... Gainera, ikasgai guztietarako oso baliabide erabilgarriak dira. Testu liburuak, berriz, kontsulta liburu moduan erabili behar dira eta ikasgelako liburutegian eduki.

Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko askotariko testuak eduki behar dira ikasgelan, formatu guztietan. Egun, IKTek aukera ezin hobe ematen dute ikus-entzunezko

baliabideak eskuratzeko eta biltzeko, eta horretaz gain, idatzizko testuetarako euskarri izateko. Hala ere, testu idatzizko ageriko presentzia izan behar dute ikasgelan.

Ahozko testuen corpusean, bestalde, euskalkien laginak eta eredu errealek egon behar dira ikasleek horiek ezagutzeko eta lantzeko aukera izan dezaten. Horretaz gain, ahozko testuen aldaera informalek eta erregistroek ere lekua izan behar dute.


Ikastetxean ikasgai diren atzerriko hizkuntzen eta hizkuntza ofizialen ohiko materialez gain, inguruan presentzia duten hizkuntzen laginak izatea komeni da, batik bat, ikastetxeko etorkinen hizkuntzenak.

Bestalde, komunikazio-proiektuen helburu errealarari eusteko, ikasleen ahozko eta idatzizko ekoizpenak ikastetxeko eta ikasgelako baliabide bihurtu daitezke eta materialen biltegia hornitu.

Esandako guztiaz gain, kontuan hartu behar da hizkuntzen erabilera ikastetxetik haratago doala; horregatik, beste leku batzuetako hizkuntza erabileretara hurbildu behar dira ikasleak eta hitzaldietara, bertso saioretara zein lehiaketetara... joatea, ipuin kontalariak entzutera eramatea edo antzezlanak ikustera, irrati saiotan parte hartzea, euskara indartzeko barnetegietan parte hartzea, udal liburutegiko liburuak kontsultatzea ... baliabide ezin hobeak bihurtu litezke.

Hizkuntzen eta hizkuntzaren erabileren eredu desberdinetan, bai eta euskalki desberdinetan mintzatzen diren pertsonak gelara eramatea ere baliabide eraginkorra da, interakzio aberatsak sortzen baitira ikasleekin.

Hizkuntzak ikasteko baliabideak



5.6. Ikasgelako jardueren antolaketa

Nola antolatu ikasgelako jarduerak metodologia aktiboaren ikuspuntutik?

Metodologia aktiboak hauxe eskatzen du: jarduerak sekuentzia didaktikoen bidez antolatzea, non jarduera guztiak helburu jakin bat lortzeko batasuna ematen dien ardatz baten inguruan antolatuta dauden.

‘Komunikazio-proiektuak’ izeneko proposamen didaktikoetan jardueren sekuentzia bat edo gehiago biltzen dira eta horietan ikasleek komunikazio helburu erreala duten ahozko zein idatziko testuak ekoitzi behar dituzte. Jarduerak hobetu nahi den hizkuntzaren erabileraren inguruan egituratzen dira; hori da hain zuzen, proiektuaren motorra eta azken helburua.

Komunikazio-proiektuen ezaugarriak


Komunikazio-proiektuetan ekoitzi behar den testuaren formaren eta edukiaren inguruko jarduerak txertatzen dira. Edukia curriculumeko gaia izan liteke edo beste ikasgai batekoa edo, bestela, ikasleen intereseko edozein gai.

Proiektuetan hizkuntza-trebetasun guztiak lantzeko jarduerak proposatzen dira; beraz, ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko aukera ematen dute, edozein delarik azken ekoizpen gisa proposatu den testua. Horretaz gain, ulermen eta ekoizpen prozesuei lotutako lan koherentea ahalbidetzen dute, bataren hobekuntzak besteara dakarrelako eta alderantziz.

Hizkuntzaren erabilera eta erabilera horren gaineko hausnarketa banaezinak dira, ez baitago erabilera hobetzerik gogoetarik egin ezean.


Ikasleen azken ekoizpenak komunikazio-egoera erreal eta zehatzetan txertatu behar dira, ikasleei ezagutarazi eta beraiekin negoziatu ondoren. Era horretako egoera komunikatiboak askotarikoak izan behar dira helburuari, euskarriari, argitalpen lekuari ... dagokienez, ikasturteetan eta hezkuntza etapetan zehar ikasleek beren testu- eta hizkuntza- errepertorioa zabaldu ahal izateko.

Egungo gizartean, informazio eta komunikazio teknologiek proiektuak gauzatzeko eta jakinarazteko lana errazten dute. Modu etikoan eta erantzukizunez erabili ahal dira eta erabili egin behar dira proiektuak gauzatzeko, zuzentzeko eta aurkezteko.



Komunikazio-proiektuen faseak

Ondokoak dira komunikazio-proiektuen faseak:



Oso garrantzitsua da proiektua planteatzen denean, aurrez zehaztu diren helburu didaktikoak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak ikasleei jakinaraztea eta beraiek onartzea negoziazio prozesu baten ondoren.

Proposatu den ahozko edo idatzizko testuaren helburu didaktikoak, ikasteko edukiak eta ebaluazio-irizpideak curriculumaren arabera hautatuko dira.

5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak

Zeintzuk dira oinarrizko edukiak?

Prozedurazko edukiak dira proposamen didaktiko guztien ardatz. Kontzeptuzko edukiak, berriz, hizkuntzaren erabileraren inguruko hausnarketan eta hobekuntzan laguntzeko tresnak dira. Eta jarrerazko edukiak, bai hizkuntzen eta hiztunen bai ikas prozesuen ingurukoak, sekuentzia didaktiko guztietan agertu behar dira.

Oinarrizko edukiak ahozko eta idatzizko testu-generoak dira; horiek etaparen, mailaren eta hizkuntzaren arabera hautatu beharko dira aurrez ezarritako helburuak lortzeko.

	Argudio testua	Narrazio testua
Literatura	Testu osoak edo testu zabalagoetan txertatuak... (hitzaldiak, eztabaidak, saiakerak...)	kontakizun laburra, eleberria, ipuina, biografia, autobiografia, kondaira, olerki epikoa, erromantzea...
Komunikabideak	Iritzi artikulua, zuzendariari gutuna, telebistako debatea, mahai-ingurua ...	Albistea, erreportajea, kronika, filma, telebista-saioa, irrati-nobela...

Testu-generoen antolaketa. Eredu bat

Testu-tipologia da testu-generoen aniztasuna hizkuntza guztietatik antolatzen, sailkatzen eta hautatzen laguntzen duen tresna. Testu-generoak sailkatzeko eta hautatzeko, ikasleen komunikazio beharrei eta horien erabilpen eremuei erreparatuko zaie.

Komunikazio gaitasunaren garapenak eskatzen duena zera da: proiektu guztietan azpigaitasun soziolinguistikoa, azpigaitasun diskurtsiboa eta azpigaitasun linguistikoa hobetzera bideratutako edukiak hautatu eta jorratzea, ikasleek sortuko dituzten testuak egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak izan daitezen.

Programazioa egitean, beraz, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntzen artean transferitu daitezkeen edukiak eta zein hizkuntza bakoitzak dituen berariazko ezaugarriak; horrela, ikasleekin ikasgelan egiten den lanari etekina aterako zaio eta denbora aurreztuko da, errepikapen aspergarriak eta kontraesanak saihestuz.

Hizkuntzen artean transferitu daitezkeen edukiak euskara eta gaztelania ikasgaien artean banatu eta, behar denean, indartu egingo dira. Horretarako, edukiak hautatzeko eta hizkuntzen artean banatzeko irizpideak zehaztu behar dira.

Nola hautatu edukiak metodologia aktiboaren ikuspuntutik?

Diziplinaren ardatza hizkuntzak deskribatzeko baliagarria bada ere, edukiak antolatzeko zaharkituta dago metodologia aktiboaren eta proiektuen bidezko lanaren ikuspegitik. Beraz, oztopatu egiten du hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzen helburua, hau da, erabilera hobetzea.

Hizkuntzetan eta hizkuntza bakoitzean landuko diren edukiak zehazteko, hizkuntza horretarako, kasu honetan euskara eta literatura ikasgairako, aurrez erabaki diren testu-generoen hautaketa izango da abiapuntua. Testu-generoak hautatzeko irizpide nagusia ikasleentzako funtzionalak eta esanguratsuak izatea da.

Nolanahi ere, edukiak aukeratzeko abiapuntuak ikasleen interesak, beharrak, garapen kognitiboa eta komunikazio gaitasuna izango dira.

Edukien hautaketaren progresioan ondoko irizpideak hartu behar dira kontuan: gaien hurbiltasuna eta interesa ikasleentzat, testuen maila abstraktua edo konkretua eta testuak ulertzeko eta ekoizteko behar diren prozesu kognitiboen konplexutasuna. Hala ere, hizkuntzaren ikaskuntzaren izaera helikoidalak testu-genero berdinak une desberdinetan berriro lantzea eskatzen du.

Egungo curriculumek edukien progresiorako gida-lerroak ematen dituzte, batez ere, prozedurazko edukiei dagokienez. Curriculumeko edukien eta ebaluazio-irizpideen eta adierazleen antolaketa komunikazio-egoera gero eta konplexuagoak aurkeztean oinarritzen da.

Ezinbestekoa da hezkuntza etapa bakoitzean eta hizkuntza bakoitzean eduki diskurtsibo, lexiko, sintaktiko, morfologiko... anitz lantzea, behar-beharrezkoak baitira hizkuntza erabiltzeko.

5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozkoaren ulermena

Oro har, eskolak ahaztu xamar izan du ahozkoaren lanketa sistematikoa bere eguneroko praktikan. Alde batetik, hizkuntza idatziari emandako lehentasunagatik; eta bestetik, adibide aztergarriak eta eredugarriak bildu eta ikasleen ekoizpenak jasotzeko zailtasunagatik. Egun, IKTek eta web 2.0k trebetasun honen lanketarako baliabideak eskuera jartzen dituzte, ahozko testuak grabatzeko, entzuteko eta jasotzeko zereginetan.

Zer egin ahozkoaren ulermena lantzeko?

-Kontuan hartu ahozko testuen berezitasunak.

Ahozko testuak ulertzeko prozesua idatzizko testuak ulertzeko prozesuaren antzekoa da; hala ere, badiu zenbait berezitasun, batez ere, ahozko testuen informazioa denbora errealean prozesatu beharra dagoelako. Gainera, zaratak, distortsioak eta interferentziek zaildu egiten dute ulermena. Grabatutako testuei dagokienez, berriz, zenbat eta solaskide gehiago izan eta haien ahotsa zenbat eta antzekoagoa izan, are zailagoa da solaskide bakoitza identifikatzea eta haren hizkera ulertzea. Era berean, entzutezko edo ikusizko ulermena zailtzen dute diskurtsoak gainjartzeak, murrizketa fonetikoak, hizkuntza-erregistroa, euskalkia edota azentua ez ezagutzeak, bizkor hitz egiteak, intonazio monotonoa izateak, behar bezain ozen ez hitz egiteak, etab.

-Zertarakoaren garrantzia azpimarratu.

Entzute-jarduerak zentzua eta helburua emango dien testuinguruan txertatu behar dira, ahaztu gabe, beste ikasgaietan ere garrantzia eta presentzia izan behar duen trebetasuna dela.

Entzun xede desberdinekin entzuten da (esaten denaren funtsaz jabetzeko, informazio espezifiko lortzeko, informazio inplizituaz ohartzeko ...), eta helburu horiek estrategia desberdinak erabiltzea eskatzen dute.

Bestalde, entzute-jarduerak ez dira modu isolatuan proposatu behar baizik eta sekuentzia didaktikoen edo komunikazio-proiektuen baitan; izan ere, ahozkoaren ulermen jarduerak lotuta joan ohi dira beste trebetasunak lantzeko jarduerekin: ikasleek informazioa erabiliko dute ahozko azalpen baten, edo hizkuntzaren musikaltasunaz hausnartuko dute eta soinuen eufoniarekin jokatu. Zertarakoak erabateko garrantzia du; izan ere, helburu bat edo beste izateak gidatu egiten du entzute lana.

-Jarrera positiboak sustatu.

Funtsezkoa da jarrerak lantzea. Hizkuntzarekiko jarrera baikorrak sustatu behar dira ikasleek senti dezaten beharrezkoa dela hizkuntza eta hizkuntza-erregistro desberdineko ahozko testuak ulertzea bertako euskalkiak, besteak beste. Era berean, ikasleen arteko errespetu eta lankidetzaren giroa eta ikasleen aniztasunarekiko jarrera positiboak sustatu eta landu behar dira ikaskideen ahozko ekoizpenak entzun eta baloratzeko unean.

-Kontuan izan irakaslea hizkuntz eredua dela.

Irakaslea hizkuntz eredua da ikasleentzat, batez ere gure hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa dela eta euskararen presentzia desabantailan dagoen tokietan. Horrelako egoeretan irakaslea da, batez ere, hizkuntzaren eredua, eredurik hurbilena eta askotan ikasleen erreferentzia ia bakarra. Beraz, jarduteko era, estiloa, erregistroa, esateko moduak, hizkuntza aberastasuna, egokitasuna eta zuzentasuna zaindu behar ditu.

Horretaz gain, komenigarria litzateke ikasleen ahozko ulermena hobetzen laguntzeko beste ikasgaietako irakasleen diskurtso akademikoa egituratzeko jarduera-protokolo bat erabiltzea.

-Entzute prozesuari lotutako estrategiak landu.

Ahozkoaren ulermen-prozesuak, idatzizkoarenak bezala, hiru une desberdin ditu eta horietako bakoitzak estrategia bereziak eskatzen ditu:

1. Entzun aurretik

- Entzungo duten testuaren gaia aipatzea.
- Aurre ezagutzak azalartzea.
- Entzuketaren zertarakoa azpimarratzea.
- Ongi zehaztea zer egingo duten entzuketatik ateratako informazioarekin.
- Entzungo dituzten zenbait hitz zailen inguruko argibideak ematea.
- ...

2. Entzun bitartean

- Entzuketara prozesuan informazioa eta datuak jasotzeko teknikak erabiltzea (oharrak idatzi, txantiloiak bete, lehendik planteatutako galderak erantzun...)
- Hipotesiak adierazi eta egiaztatzea.
- Entzuketara prozesuan sortutako zalantzak eta zailtasunak argitzea.
- ...

3. Entzun ondoren

- Entzundakoa interpretatzea eta egiaztatzea.
- Informazioa berrantolatzea eskemen edota laburpenen bidez.
- Informazioa erabiltzea, aurrez ezarritako helburuaren arabera.
- ...

Nolako testuak entzun behar dituzte ikasleek?

Ahozko testuen ulermena hizkuntzakoak ez diren ikasgaietara eta ikasgelatik kanpoko jardueretara ere zabaltu behar da; izan ere, ahazko hizkuntza nonahi dago, nonahi topa daiteke eta nonahikotasun hori baliatu behar da.

Hizkuntza saioetan, ahazkoaren ulermen-jarduerak beste hizkuntza trebetasunekin batera landu behar dira komunikazio-proiektu zabalagoetan. Horietan, ahazko testu errealek

eta ikasleen adin eta interesetatik gertukoak proposatu behar dira; ikasleek ulertzeko modukoak baina, aldi berean, erroka kognitiboa eskatzen dutenak.

Testuak, bestalde, askotarikoak izan behar dira, helburuari, erregistro, euskalki, euskari, testu-tipo eta testu-generoari dagokienez, ahazko literaturaren testuak ahaztu gabe.

Ikasgelatik kanpo, berriz, askotariko jarduerak planifikatu daitezke ahazkoaren ulermenari laguntzeko (antzezlanak, errezitaldiak, bertso saioak eta lehiaketak antolatzea nahiz beraietara joatea, bisita gidatuak ...). Horri lotuta, euskararen eta



euskal kulturaren, gaurkotasuneko gaien zein ikasleen intereseko beste edozein gairen inguruko hitzaldiak eta solasaldiak antolatu eta egin daitezke ikastetxean bertan.

Beste ikasgaietan antolatuko diren bisita gidatuak ere erabil daitezke ahozko testu errealean iturritzat: planetariora, museo eta erakusketetara joatea ... eta ikasleek entzungo dituzten ahozko azalpen formalen inguruko jarduerak prestatu.

Eskola irratia ere baliabide ezin hobea da ikasleek ahozko testuak sortu eta entzun ditzaten. Gainera, teknologia berriek horrelako baliabideak sortu eta kudeatzeko aukera anitzak eta eskura errazak dituzte gaur egun. Horretaz gain, blogak, wikiak eta antzeko euskarriak bultzatu daitezke bai ikastetxean bai ikasgelan, ikasleek entzumen jarduerak egin ditzaten.

Teknologia berriek, halaber, aukera ematen dute ikasleek beste leku bateko ikasleekin harremanak izan edota beste euskalki batzuk entzuteko.

Nola entzun? Zenbait aholku

- Ikasgelako giroa zaindu behar da, ezinbestekoa den isiltasuna, giro lasaia eta elkarrekiko errespetua lortzeko.
- Entzute saioen iraupena kontrolatu behar da, ulermenak eskatzen duen tentsioari eusteko.
- Diskurtso zatietatik abiatzea komeni da, inferentziak egiten laguntzeko: elkarriketa zati batetik abiatu, solaskideak zertaz ari diren asmatu, zer gairekin egon daitekeen erlazionatuta adierazi...
- Entzunaldian zehar ikasleen artean banatu daiteke lana: batzuek ideia nagusiak, beste batzuek edertasuna ematen duten elementuak, hitz zailak, antzemandako desbideratzeak...
- Ahozkoaren ulermenari lotutako ebaluazio-adierazleak kontuan izan behar dira eta ikasleei jakinarazi eta, ahal den neurrian, beraiekin adostu.
- Ebaluazioari dagokionez, entzuketa prozesuaren inguruko hausnarketa egiteko txantiloiak eta kontrol orriak erabil daitezke.
- Talde lana bultzatu behar da entzunaldietan, batez ere, ahozko literatura eta literatura entzunaldiak lantzean, ikasleek entzun dutenaren gaineko interpretazioa egiten dezaten. Interakzioa sustatzea modurik eraginkorrena da interpretazioari laguntzeko, ideiak, sentimenduak elkarrekin partekatzeko ...



5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozko adierazpena

Ahozko adierazpenak ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko testuak, batik bat, norberak kudeatuak, ekoizteko trebetasun, ezagutza eta jarreraren oinarritzko multzoa hartzen du barne.

Egungo gizartean ahozko komunikazioak ukatu ezineko lehentasuna eta tokia du; izan ere, hizkuntza mintzatua ondo erabiltzeak erabateko garrantzia du hainbat esparrutan, hala nola, lan munduan, gizarte harremanetan, harreman pertsonaletan ...

Oro har, eskolak bere eguneroko praktikan ahaztu xamar izan du ahozkoaren lanketa sistematikoa, normalean idatziaren aldera jo izan duelako. Horretaz gain, hizkuntza mintzatuaren lanketak beste zailtasun batzuk izan ditu: ikasleen ekoizpenak jasotzea eta, batez ere, ahozko testuak lantzeak eskatzen duen antolaerari aurre egitea (espazioa, denboraren kudeaketa, irakaslearen eta ikasleen egitekoen aldaketa ...).

Bestalde, oraintsu arte ikasgela lan egiteko espazio isila izan da, non irakasleak soilik hitz egin behar zuen. Egun, ordea, komunikazio eta interakzio gune bihurtu behar da, ikasleek, azalpenak eman, negoziatu, iritziak adierazi eta elkarrekin partekatuko dituzten tokia, eta horretarako, aukerak eman behar zaizkie eta denbora izan behar dute, beti elkarrekiko errespetua eta lankidetzaren giroa sustatuz.

Nolako ahozko testuak landu behar dira?

Eskolan, ikasleek ahozko erabilera formalak jorratuko dituzte, batez ere. Izan ere, eskola erabilpen-eremu formala da, eta eskolan egiten diren ikaskuntza jarduerak ere formalak dira (adibidez, irratikronikak, ahozko azalpenak, albisteak, olerkiak...). Erabilera formal hauetan ahozko azalpenak leku garrantzitsua izan behar du ikaskuntzaren transmisioari lotutako generoa baita; eta horretaz gain, arlo eta irakasgai guztietan landu beharrekoa.

Hala ere, euskarari dagokionez, hizkuntzak gizartean presentzia urria badu, erabilera informalek (pasadizoak, gertaerak, abestiak ...) ere lekua izan behar dute ikasleek gizarteak eskaintzen ez diena eskolan jorratu eta komunikazio gaitasuna euskaraz gara dezaten.

Ikus-entzunezko baliabideek eta informazio eta komunikazio teknologiek aukera ematen dute ahozko ekoizpenak jasotzeko. Bestalde, Portafolioa oso tresna erabilgarria izan daiteke ikasleen ekoizpenak biltzeko eta ahozkotasunaren garapenaren bilakaera egiaztatu eta gogoeta egiteko.

Ahozko adierazpena lantzeko zer egin behar da?

Ahozko testuak ekoizteko prozesua testu idatzia sortzeko prozesuaren antzekoa izan arren, ahozko testuak ezaugarri bereziak dituzte, esate baterako, elementu paralinguistikoak. Elementu hauek ere sistematikoki landu eta ebaluatu behar dira.

Ikasgelan ahozko hizkuntza lantzen bada ere, askotan, prozesuaren urratsak sistematikoki jorratzea falta izaten da. Ahozko azalpenak edota beste edozein ahozko genero gauzatzeko, ibilbide zehatz bati jarraitu behar diote ikasleek. Euskara ikasgaiko programazioan, beraz, mintzamena lantzeko ataza, sekuentzia didaktiko edo proiektuez gain, ahozko testuen ekoizpenari lotutako urratsak proposatu beharko dira.

Urrats horiek ondokoak dira:

- Ikasleek ekoizteko duten ahozko testuaren arabera ahozko testu errealek ereduak entzutea eta testu-genero anitzak aztertzea (xedeak, erabilpen-eremuak, hizkuntza-erregistroa, euskalkia ...); horretarako, IKT tresnek eredu ugari jartzen dituzte eskuragarri, adibidez, irratikronikak, webguneak eta telebista eta bideo guneak.
- Ahozko testuen planifikazioan komunikazio-egoeraren araberako egokitzapena egitea (hartzailearen ezagutzak eta interesak kontuan hartzea, ahozko testuaren xedeak, denborara doitzea, tokia, erabili beharko erregistroa ...). Tresna gisa, planifikazio orriak erabili daitezke.
- Ahozko testua egituratzea: aurreko parametroetan oinarrituta, informazio egokia bilatu eta hautatzea eta eskemen bidez antolatzea.
- Saioak egitea proba moduan eta tarteko ebaluazioa gauzatzeko, behin betiko saioa bideratzeko. Ekoizpenaren zuzentasuna, egokitasuna eta jatorria lantzea beharrezkoa da.
- Ahozko ekoizpenari laguntzeko eskemak egin eta oharrak idaztea, esan behar dutena buruz errepikatzea mugatu gabe.
- Ahozko aurkezpenak eta azalpenak egiteko ikus-entzunezko baliabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea, hala nola, irudiak, horma-irudi digitalak, power pointak, bideoak...
- Prozesuan zehar ahozko ekoizpenari lotutako estrategiak abiaraztea: mezua ulergarriago egiteko prozedurak, gaiari eusteko eta ezarritako ildoari jarraitzeko estrategiak; urduritasuna saihestekoak, keinuak, gorputzaren mugimenduak, intonazioa eta prosodia kontrolatzeko teknikak...

- Ahozko jardueretan oso garrantzitsua da ikasle guztien partaidetza bultzatzea. Horrenbestez, ikasleak inplikatu behar dira ahozko azalpenen ebaluazioan. Izan ere koebaluazioaren bidez, ikaskideen jarduna ebaluatzea oso baliabide eraginkorra da denen gogoeta bultzatzeko. Igorlearen ahozko ekoizpena balioestean, partaide sentitzeaz gain, nor bere ahozko jarduna ere hobetu ahal izango du. Gogoeta egitea eta ebaluatzea beharrezkoak dira hizkuntza garatzen laguntzeko eta edozein prozesu burutzeko.




5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: interakzioa

Ahozko interakzioa hizkuntzaren erabilerekin dugun lehenengo harremana eta harremanik ohikoena da. Hala ere, hezkuntzan ez zaio behar besteko kasurik egin, nahiz eta interakzioa menderatzea funtsezkoa izan ikasleen gizarte-bizitzan, ikasketetan eta, gerora, lanbide-bizitzan.

Hain garrantzitsua da interakzioa ezen Europako Erreferentzia Markoak beste trebetasun gisa, norbanakoak kudeatutako diskurtsotik bereizita, deskribatzen duen. Interakzioan ikasleek hiztun eta entzule gisa dihardute, txandaka, solaskide batekin edo gehiagorekin, ahozko elkarrizketa bat osatzeko, eta elkarlanaren printzipioari jarraituz esanahiak negoziatzen dituzte.

Ahozko elkarreragina, nagusiki, aurrez aurrekoa da eta horrek ezaugarri aniztasuna ematen dio testuari eta hizkuntzari dagokienez, baita ezaugarri paralinguistikoei eta testuinguruko seinaleei dagokienez ere.



Interakzioak, beste trebetasunekin gertatzen den bezala, erabilera gidatuaren eta etengabeko praktikaren bidez garatzen da; ez da bat-batean eta une jakin bati lotuta ikasten den trebetasuna. Beraz, etapa guztietan landu behar da eta ikastetxean interakziorako bideak eta aukerak ematen dituzten egoera komunikatiboak proposatu eta graduatu behar dira, zailtasun eta konplexutasun mailaren arabera.

Zer egin ikasgelan?

- Interakzioa ikaskuntzaren bultzatzaile bihurtu.

Interakzioaren alderdi sozialaz eta pertsonalaz gain, funtsezko trebetasuna da ikaskuntza ahalbidetzeko, ikasle-irakasleen arteko elkarrizketaren bidez nahiz ikasleen elkarlanaren eta elkarrizketaren bidez. Interakzioak ezagutza eta esanahi bateratua eraikitzen laguntzen du.

Horregatik, beharrezkoa da ikasgelan elkarrizketa sartzea bai edukien ulermena bai proposatu diren jardueren ulermena egiaztatzeko. Izan ere, askotan, ikasgelan ezartzen den komunikazioaren estiloa norabide bakarrekoa izan ohi da eta ez du erantzunik eskatzen. Alderdi hau erabat lotuta dago Oinarrizko Gaitasunen garapeneren markoan irakasleak eta ikasleak izan behar duten rol aldaketari.

Funtsezkoa da talde-lana proposatzea eta eraginkortasunez kudeatzea. Helduekin gertatzen den bezala, taldeka lan egiteak luzaroko praktika eta ikaskuntza behar izaten ditu; horregatik, honelako proposamenak ikastetxean hartuko diren erabakien ondorio izan behar dira, ikasleek lan egiteko teknika hau ohitura bihur dezaten.

- Askok kudeatutako testuak proposatu (debateak, mahai-inguruak, elkarrizketak ...)

Komunikatzeko nahirik gabe ez dago komunikaziorik. Hori dela eta, komunikazio egoera aproposak, egoera errealei lotuak edota horien adierazpen errealak izan daitezkeenak, sortu beharko dira ikasgelan, ikasleen interesa piztu eta ikasleek ahalik

eta modurik eraginkorrean komunikatzeko beharra senti dezaten. Horrenbestez, ikasleen intereseko gaiak proposatu behar dira eta gaien kudeaketa ikasleen esku utzi.

Bestalde, ikasgelan interakzioari lotutako jarduerak gauzatu ahal izateko, konfiantza eta elkarrekiko errespetu giroa lortu behar da komunikazioa ahalbideatzeko. Besteak beste, estrategia gisa, kontratu didaktikoak erabil daitezke eta bertan zer onartuko den eta zer arau ezarriko den adierazi.

Halaber, komunikabideetatik hartutako ereduak ikustea eta entzutea ('errealitak', debateak...) baliabide aproposak izan litezke, errentagarritasun didaktikoari begira; izan ere, batzuetan, batere eraginkorra ez den interakzioaren adibide ezin hobek izaten dira.

Interakzioari lotutako jarduerak Euskara eta Literatura ikasgaiaren hainbat eduki desberdin lantzean planifikatu daitezke. Esaterako, literatur gaiak lantzean edota edozein literatur liburu irakurtzean tertuliak edo irakurketa taldeak proposatu daitezke; horrela, interakzio eraginkorra eta erregulatua landu ahal izango da.

Talde interaktiboak sortzeak ere trebetasun honen garapenari lagun diezaioke. Horrela, ikastalde berean pertsona helduak arituko dira ikasle lan-taldeei laguntzen. Teknika hau oso eraginkorra da elkarlanean oinarritutako ikaskuntza bideratzeko.

Beharrezkoa da, bestalde, ikasleen parte-hartzeak aldiro grabatzea. Bideo grabazioek ez dute tresneria berezirik behar: sakelako telefonoa, argazki kamera edo bideo kamera, besterik ez. Tresneria sinplea, baina behar-beharrezkoa, ikasgelan ahozko hizkuntza eraginkortasunez landuko bada.

Ikasleen interakzioei behatuz gero, zailtasunak ikusi eta arazoak aztertzeaz gain, ikasleek beren jardunaren gainean hausnartu ahal izango dute, izan ere ebaluatzeak eta hizkuntzaren erabileraren inguruko gogoeta egiteak erabateko garrantzia dute erabilera hobetzeko. Koebaluazio jarduerak egin daitezke (irakasleak ikasleekin, ikasleak elkarrekin) aurretiaz prestatutako kontrol zerrendak erabiliz.

Interakzio diskurtsoak, batzuetan, ahozkotik idatzizkora pasatu behar izaten dira, esaterako, norbaiti elkarrizketa egin eta grabatu ondoren, edo elkarrizketa batean azaldutakoa laburtzean... Lanketa horrek gogoeta lana egitera behartzen du eta ahozko interakzioari berari lotutako ezaugarriez hausnartzera.

- Interakzioa erregistroak eta aldaerak lantzeko baliabideetat erabili

Zenbait egoera soziolinguistikotan ikasleek eskolan soilik entzun, hitz egin eta lantzen dute euskara. Horrelako egoeretan, sarri, partaide ezagunekin eta gai arruntenetan ere problemak izaten dituzte hitz egiterakoan. Problema horiek linguistikoak dira asko, eskolaz kanpoko gai arruntekin erlazionatutako hiztegia erabiltzekoak beste batzuk, baina baita esapide "jatorrei", eguneroko esamoldeei, dagozkienak ere. Beraz, ikasle hauekin eztabaida ez formala eta elkarrizketa arrunta landu beharko dira gelan.

Etiket euskaldun diren ikasleak, aldiz, eguneroko solasetan euskaraz parte hartzen ohituta daude eta erregistro arrunta erabili ohi dute. Horien jarduna izan liteke batzuk besteengandik ikasteko bidea, talde heterogeneotan lan eginez, ikaskideen solasak entzunez eta egoera eta moduak eskolan sortuz interakzio errealak, benetakoan antzekoak egiteko.

5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: irakurriaren ulermena

XXI. mendean, informazioaren eta ezagutzaren mendean, modu egokian irakurtzen ez jakiteak edota irakurtzeko gaitasuna behar bezain ongi garatuta ez izateak gizarte bazterketaren arriskua dakar, norbanakoaren gizarte-, lan- eta pertsona garapena oztopatzen baitu.

Irakurtzea testuaren deskodetze hutsa baino askoz prozesu konplexuagoa da; izan ere, ondokoak eskatzen ditu: abilezia kognitibo konplexuak erabiltzea, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak abiaraztea eta irakurketa praktikatzat hartzea. Alderdi horiek guztiek berariazko lanketa eskatzen dute ikasgelan.

Irakurle gaituak izateko ikasleek gauza izan behar dute:

- Testuaren zentzu orokorra ulertzeko
- Informazioa berreskuratzeke
- Testua interpretatzeko
- Irakurketan zehar ulermen arazoak detektatzeko eta horiek konpontzeko.

Gero, ondokoak egin ahal izateko:

- Informazioa erabiltzeko eta horrela aurreikusi den helburuari erantzuteko.
- Laburtzeko, buru-mapak eta eskemak egiteko.
- Irakurritakoaren inguruko balorazio kritikoa egiteko.
- Norberaren ezagutzetatik abiatuta, iritzia adierazteko .

Nola landu irakurketa?

Irakurketari lotutako jarduerak zentzua eta helburua emango dien testuinguruan txertatu behar dira, ahaztu gabe, irakurketa curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan dagoen hizkuntza-trebetasuna dela.

Xede desberdinekin irakurtzen da (irakurketaren plazera lortzeko, informazio zehatza eskuratzeko, testuaren ikuspegi orokorra izateko, ikasitakoaren inguruko kritika egiteko edo berrikusteko, ezaguna den informazioa zabaltzeko ...), eta horregatik, helburu bakoitzaren araberako estrategiak baliatu behar dira.

Irakurketa jarduerak sekuentzia didaktiko konplexuagoen barruan txertatu behar dira; izan ere, ulermen jarduerak estu lotuta daude beste hizkuntza-trebetasunak lantzeko jarduerekin: irakurri egiten da gero idazteko, irakurri egiten da irakurritakoaz jarduteko, irakurri egiten da ahozko azalpena egiteko ...

Irakurketa prozesuak hiru une desberdin ditu irakurritakoa ulertzeko eta interpretatzeko estrategia desberdinak garatzea eta lantzea eskatzen dutenak:

Irakurri aurretik

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuaren esanahiaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina aktibatzea.
- Testuaren edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatzea.
- Aurreikuspenak eta hipotesiak adieraztea, formatuaren ezaugarriari erreparatuz, lokailuei erreparatuz...
- ...

Irakurri bitartean

- Hipotesiak etengabe adierazi eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testuak sorrarazten dituen zalantzak argitzea.
- Ulermen arazoak konpontzea
- Irakurritako atalen edukia laburbilduz joatea.
- ...

Irakurri ondoren


- Irakurritakoa berrantolatzea laburpen, eskemen, buru-mapen bidez.
- Irakurritakoa berrerabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.

...


Beraz, estrategia horiek garatu ahal izateko jarduera zehatzak eta irakurketaren helburura, hautatutako testu-generora eta ikasleen mailara egokituak eraman beharko dira ikasgelara.

Irakurketa banakako, isileko jarduera gisa zein ikasleek elkarrekin partekatuko duten jarduera gisa landu behar da. Bai bata bai bestea irakurketaren helburu desberdinak lortzeko egokiak dira.

Banakako irakurketa isila talde irakurketarekin osatu eta aberasten da. Irakurketa dialogikoan ikasgelan dauden partaideak (ikasleak, pertsona helduak, irakaslea, beste ikasle-irakasle batzuk ...) testua ulertzeko eta interpretatzeko lankidetzan aritzen dira eta galderak, iruzkinak, iradokizunak adierazten dituzte eta testua irakurtzean bizi eta sentitutakoa kontatzen. Irakurtzeko modu biek elkarri laguntzen diote.



Bestalde, irakurzaletasunaren garapena, Hezkuntza Sistemaren lehenetasunezko helburua izanik, ikasgai guztietan islatu behar da. Ondoko orientabideak kontuan harturik antolatu daiteke:



Irakurtzen eta irakurritakoa ulertzen irakasteko dekalogoia

- Irakurketari zentzua emango dion testuingurua sortu.
- Irakurzailea ikasleekin batera ondo eta arretaz aztertu.
- Ulermen helburu zehatzak ezarri.
- Bi ulermen maila kontuan izan: bata testuak dioenaren ingurukoa; eta bestea, testuak aipatzen duen egoeraren ingurukoa.
- Ikasleen desberdintasunak kontuan izan.
- Ulermen prozesuak ozenki adierazi eta egituratzen lagundu.
- Ikasleen buru-prozesuak bideratuko dituzten galderak egin.
- Galderen erantzunak jarraibideen eta argibideen bidez gidatu.
- Testu-genero eta galdera mota desberdinekin praktikatu.
- Ulertu eta interpretatutakoa partekatu.

Eduardo Vidal-Abarca

Zer irakurri?

Ikasleak trebatu behar dira eskola eta gizarte eremuetan erabilgarriak diren testuak bai eta garapen pertsonalerako lagungarri izango zaizkien testuak ere ulertzen eta interpretatzen.

Ezinbestekoa da testu-bankua osatzea; testu errealak eta askotarikoak izango dituen testu-generoari, euskarriei, erabilpen eremuari eta euskalkiei dagokienez, testu jarraiak eta ez-jarraiak ... Halaber, ikasgelan gauzatuko diren komunikazio-proiektuen gaiei lotutako testuak eta beste ikasgai batekoak eta ikasleen interesekoak ere erabiliko dira.


Internet, egun, liburutegi digital handi eta garrantzitsua bihurtu da, etengabe gaurkotzen dena eta testuak bilatzeko eta hautatzeko zereginetan laguntzen duena. Beraz, testu digitalen helbideak aukeratu behar dira.

Testu digitalek, bestalde, abilezia bereziak lantzea eskatzen dute; izan ere, hipertextuaren egitura ez da lineala, adarkatua baizik; irakurtzeko ibilbide anitz eta

aukera asko eskaintzen ditu. Horregatik, irakasleak irakurle ez gaituei lagundu behar die irakurtzeko ibilbidea zehazten, irakurketaren helburuaren arabera.

Irudiak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, horregatik, egun, testu asko kode anitz erabiltzen dituzten testu 'multimodal' bihurtu dira. Ikasleek, beraz, komunikazio testuinguru arruntetan gero eta indar handiagoa duten testu hauek irakurri eta interpretatzeko abileziak eta trebetasunak garatu behar dituzte, hainbat kodigo desberdin erabiltzen baitituzte.

Irakasleak, bestalde, beste ikasgaietan erabiltzen eta eskatzen diren testu-generoen berri izan dezake (laborategiko txostenak, landare, animalia edo onddoei buruzko gidak, lan monografikoak, helburu desberdinekin egiten diren laburpenak, pertsonaien biografiak...) eta hizkuntzazko ikasgai bihurtu.



5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: idazmena

Egungo gizartean, idaztea hizkuntza idatzia askotariko komunikazio egoeretan erabiltzen ikastea da, bizitza pertsonalari, lanari eta gizarte esparruei zein ikasketei lotutako komunikazio egoeretan, hain zuzen ere. Hortik datoz, beraz, idatzizko hizkuntzaren diskurtsoen ugaritasuna eta testu horien erabilera anitzak, idazketaren erabilera praktikotik hasi (oharrak, gutunak, kontratuak, txostenak, eskabideak ...) eta erabilera artistikoetaraino hedatzen direnak (asmo literarioko testuak, estilo ariketak ...). Horretaz gain, egungo gizarte digitalizatuan idaztea ezinbesteko tresna da; izan ere, askotariko komunikazio trukeetan parte hartzea ahalbidetzen duten idazteko modu berriak eta testu-generoak sortu dira hala nola, posta elektronikoa, txatak, blogak, wikiak, foroak ...

Nabarmendu egin behar da idazteak garrantzia duela edozein ikasgai ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, besteak beste, idatzi egin behar izaten da irakurtzen eta entzuten den bitartean (galderak, oharrak, beste irakurgaiekiko erreferentziak, laburpen txikiak, gidoiak eta eskemak egitea ...), eta idatzi egiten da ikasitakoa jasotzeko

(laburpenak, eskemak ...); halaber, idatzi egiten da ikasitakoa berrantolatu, eraldatu eta ezagutza berriak eraikitzeko.

Idazteak berebiziko zeregina dauka ezagueraren eta pentsamenduaren antolaketan eta adierazpenean, elkarrekiko interakzio prozesuaren bidez. Horregatik, idazketaren erabilera egokia eta gaitua ahalbidetzen duten ezagutzak, estrategiak, abileziak eta teknikak irakastea da eskolak duen helburu nagusietako bat. Egiteko hori irakasle guztiei dagokie, eta ez, soilik, euskara edo beste hizkuntzen irakasleei.

Bestalde, idazketa prozesua lantzean kontuan izan behar da hizkuntza-trebetasunak (hitz egin, entzun, irakurri eta idatzi) ez direla modu isolatuan landu behar, baizik eta elkarri lotuta: hitz egin eta irakurri egiten da gero idazteko; eta idatzi egiten da gero irakurtzeko edota horretaz hitz egiteko.

Nola landu idazketa?

Ikasgelan landu behar den idazketa prozesuan ondoko oinarriko printzipioak hartu behar dira kontuan:


- Idazte-prozesuaren konplexutasuna. Ikasleei ikustarazi behar zaie idaztea oso prozesu konplexua dela eta horregatik idazten idatziz, eta asko idatziz, ikasten dela; izan ere, eskolaldiko urteetan eta bizi osoan garatuko den trebetasuna da. Beraz, ikasleen interesetatik gertuko atazak eta proiektuak proposatu behar dira, erronka kognitiboak, hizkuntza mailakoak nahiz komunikazio mailakoak, eskatuko dizkietenak baina.
- Idazketa proiektua komunikazio-egoera batean txertatzeko beharrezana. Ikasleek zerbaitengatik eta zerbaiterako idatzi behar dute. Beraz, ikasleen ekoizpenak eskolako ohiko egoeretan txertatu behar dira eta idazteko egoerak eta uneak dibertsifikatu (aldizkari eta egunkarietan idaztea, ikaskideen arteko trukeetan parte hartzea, Administrazioari edo Hezkuntza erakundeei idaztea, beste ikasgai batzuetako lanak idaztea, sarean parte hartzea ...).
- Askotariko komunikazio-egoerak proposatzea. Funtsezko tresna da hau testu-genero anitzak lantzeko eta horretaz gain, ikasleei aukera emateko gelan proposatu diren idazketa proposamen desberdinak modu egokian kudeatzeko (testuaren helburua, hartzaileak, edukiaren egitura, hizkuntza maila eta erregistroa ...).
- Ikasleei erreferentziatzat hartuko dituzten testuen eredu errealeak aurkeztea. Horien bidez komunikazio-egoera irudikatuko dute eta testuaren egokitasuna kontuan hartuko. Izan ere, testuaren egituraketak eta planifikazioak beste testu batzuen beharrezana dute, besteak beste, kontsultatzeko eta bertatik informazioa atera eta gero berrerabiltzeko, egiturak eredutzat hartzeko edo hizkuntzari lotutako arazoak konpontzeko.
- Idazketa prozesuaren bi helburuak kontuan hartzea. Idazketa prozesuaren ikaskuntza jarduerak bi helburu dituzte: helburu diskurtsiboa eta ikaskuntzari lotutako berariazko helburua (esaterako, iritzi artikulua idazteak bi helburu ditu, bata egunkarian, aldizkarian edo ikastetxeko blogean argitaratuko den testua sortzea; eta bestea, argudiatzen ikastea, tesia zehaztu eta hori defendatzeko argudioak garatzea, argudiatzeari lotutako lokailuak erabiltzea ...).
- Irakurtzeko eta idazteko egoerak solaskide desberdinekin interakzioan ahalbidetzea (ikaskideak elkarrekin, irakasleak eta ikasleak elkarrekin, pertsona helduekin..). Hartara, aurre idazketa unean ideiak partekatu, iritziak kontrastatu eta eztabaidatuko dira eta egitekoa berregokitu; idazketa prozesuan, berriz, idazkiak irakurri eta bestek balioetsi, interpretatu, eta galderak egin eta zalantzak adieraziko

dira eta lankidetzari esker testuak idatziko, akordioak eta desadostasunak bitarteko; azkenik, idatzitako testuak ikasgelako kideekin eta gainontzekoekin partekatu eta jakitera emango dira (sarean, etxekoan artean, lagunen artean, beste irakurle batzuei...).

- Ikasgelan giro aproposa eta egokia sorraraztea, ikasle guztiek idatzi dituzten testuei behar besteko garrantzia emateko eta denak balioesteko, testu bakoitzaren alderdirik onenak azpimarratuz eta idazteak emozioak, sentimenduak ideiak eta pentsamenduak adierazteko duen garrantziari indarra emanez. Testuinguru honetan, irakasleak ere bere testuak idatzi eta aurkeztu beharko lituzke, interakzioa sustatuz.

Nola programatu sekuentzia didaktikoak?

Idazteko sekuentzia didaktikoak programatzeko oso erabilgarria izan daiteke Anna Camps-ek proposatzen duen honako eredu hau:



5.13. Literatura-Hezkuntza

Literatura-Hezkuntza haurtzaroan hasi eta bizi osoan garatzen da; izan ere, irakurketaren esperientzia bikarioa familian sortzen da, ikasleak eskolatu aurretik ia eta

eskolan du jarraipena. Familia eta eskola eremu erabat garrantzitsuak dira gaitasun honen garapenerako.

Heziketa literarioa ikasleen hizkuntza- eta komunikazio-hezkuntzaren osagai garrantzitsua da. Literatur testuen irakurle eta entzule gaituak izateko ikasleek hizkuntza erabiltzailearen trebetasunak eta abileziak garatu behar dituzte, baina horiez gain, komunikazio arruntaren aldean bestelako ezaugarriak dituen beste komunikazio mota batekin, komunikazio literarioarekin, alegia, interakzioan aritzeko gaitasuna eta trebeziak ere bai.

Hizkuntza ikasgaien helburu nagusietako bat irakurle gaituak lortzea da. Horren arabera, irakurleak gauza izan behar du irakurtzen duena identifikatu, ezagutu eta gogoratzeko, testua bere testuinguruan kokatzeko, testuak dioena eta esan nahi duena interpretatzeko, testuaren forma eta edukia balioesteko eta azkenik, testuarekin interakzioan, egoera edo testuinguru pertsonal baten arabera, testua maneiatuz eta eraldatuz, ikaskuntzari lotutako beste egoera batzuetara transferitzeko. Halaber, literatur tradizioaren eta gaur egun bizi-bizirik dauden ahozko testuak entzutea ezinbesteko baliabidea da ikasleen heziketa literarioa garatzeko, eta aukera ematen die entzuketa aktiboari eta interpretazioari ateak zabaltzeko.

Bestalde, irakurketaren plazera eta ahozko literatur testuak entzutearen plazera lortzea da Literaturara hurbiltzearen beste helburu nagusia. Literatur testuak entzutean eta irakurtzean, gizabanakoak bere burua hobeto ezagutzen laguntzeko baliabideak topa ditzake, beste gizakiak eta beste egoera eta mundu batzuk ezagutzeko, mundu errealean zein irudimenezko munduetan zehar ibiltzeko eta horretaz gain, hizkuntzaren botereaz, hizkuntzak adierazpenerako duen aukera infinituez gozatzeko. Hori guztia bizitzean datza Literatura irakurtzeko eta entzuteko plazera, eta ikasleek horretaz guztiaz disfrutatzea lortu beharko lukete.

Nolako literatur testuak landu behar dira?

Literaturak hainbat testu-egitura eskaintzen ditu (olerkiak, bertsoak, antzerki lanak, eleberrak, ipuinak, mikro-narratioak, komikiak, nobela grafikoak, zinema-gidoiak ...) halaber, egungo gizartean, literaturaren baliabideak erabiltzen dituzten oso testu desberdinak bizi dira elkarrekin, hala nola, publizitate testuak, kazetaritza testuak, multimedia ... Heziketa literarioak horiek guztiak ulertzen eta interpretatzen laguntzen du.

Literatur testuek, egun, formatu anitz dituzte; izan ere, irudia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da (ilustrazioak, argazkiak, komikiak, ikusizko olerkiak...) Era berean, beste diziplinek eta arteek, hala nola, zineak, musikak, zientziak, plastikak... erabiltzen dituzten baliabideak ere txertatzen dira literatur testuetan testu adierazgarriagoak eta komunikatiboagoak lortzeko. Ikasleek, beraz, abileziak eta trebetasunak garatu behar dituzte testu hauek, kodigo desberdinak erabiltzen dituztenak eta komunikazio testuinguru arruntetan gero eta indar eta garrantzi handiagoa dutenak, irakurri, entzun eta interpretatzeko.

Testuen formatu digitalek berrikuntza handiak sorrarazi dituzte literaturaren munduan: liburu elektronikoak, sareko literatura formatu guztietan, eta literatur lanak zabaltzeko erak eta aukerak ... Testu horiek aukerak ematen dituzte interakzioan aritzeko eta beste testu batzuetara jotzeko, informazio berriak irakurri, entzun eta eskuratzeko, bai eta beste irakurleen iradokizunak, usteak eta iritziak jasotzeko ere. Beraz, horien presentzia ere bermatu behar da ikasgelan.

Bestalde, ikasgelara eraman behar dira euskal literatur tradizioari lotutako ahozko eta idatzizko testuak ikasleen heziketa literarioaren parte baitira eta Euskal Herriko kultura tradizioaren eta ondarearen lekuko.

Zer egin Literatura-Hezkuntza garatzeko?

Heziketa literarioaren ikuspuntutik, ikasleak literatur lanak entzun, irakurri, ulertu interpretatu eta balioesteko gauza izan daitezzen, ondoko aholkuak har daitezke kontuan:

- Orainalditik lehenaldirako planteamendua proposatu, irizpide unibertsal batean txertatuta eta gaien, generoen... markoaren barruan, Literaturaren historia linealaren, diakronikoaren eta izen eta tituluz jositakoaren aldean.
- Literaturaren ikuspegi alderatua bultzatu literatura desberdinen arteko erlazioak antzematea ahalbidetzeko.
- Diziplinen arteko lotura ikustarazi literatur testuen irakurketan, hau da, literatur testuak eta beste arteek, hala nola, musikak, zinemak, eskulturak... eskaintzen dituzten interpretazioak elkarrekiko lotzeko.
- Literaturaren ikaskuntza-irakaskuntzei gizarte dimentsioa eta dimentsio kritikoa eman. Testu literarioek gure gizartean duten erabileraren eta balioaren kontzientzia hartu behar da. Testuez hausnartu behar da, helburuez, sorrarazten dituzten eraginez eta transmititzen dituzten baloreez...
- Ikasleen partaidetza sustatu testuak hautatzean, interpretatzean, testuen inguruan eztabaidatzean, eta proposatutako egitekoak aztertzean eta eraldatzean. Horretarako, ondoko estrategiak baliatu daitezke:
 - Gai beraren inguruko testu paraleloak, kontrajarriak edo erlazionatuak erabiltzea. Hartara, ikasleek alderatu egingo dituzte eta erlazioak ezarriko dituzte, berdintasunak eta desberdintasunak antzemanaz. Horrela, hizkuntzak sorraraz ditzakeen gizarte eraginak esperimendu ahal izango dituzte.
 - Ikasleen arteko elkarrizketa bultzatzea, ikuspuntu desberdinak alderatzeko, idazlearen ikuspegiaren eta helburuaren inguruan eztabaidatzeko. Irakurgaiaren eta ikaslearen munduaren arteko erlazioak ezartzen laguntzen du.
 - Puntu esanguratsu eta nabarmenen berrirakurketa eta analisia egitea. nekez lortuko da interpretazio egokia irakurketa bakarra eginez, nahiz eta testua sinplea eta laburra izan
 - Interpretazioa lantzea. Testuaren interpretazioak idazlearen ikuspuntuaren edo ideologiaren azterketaz gain, irakurle gisa iritzi eta jarrera pertsonalak garatzea eskatzen du.
- Irakurketa ikasleen idazmena hobetzen laguntzeko baliabide eraginkortzat hartu, imitazio eta sormenezko berregite zein eraldatze jardueren bidez. Asko dira testuaren ulermenaren eta ekoizpen prozesuen arteko antzekotasunak. Beraz, irakurketa eta idazketa lan-proiektuen barnean uztartu behar dira.
- Sormenezko idazketan kontuan hartu idatziko den testua irakurleei zuzenduta dagoela (ikaskideei, irakasleei, familiakoei zein lagunei, beste pertsona heldu batzuei). Horiek dira, beraz, testua irakurri, bere egin eta balioetsi egingo dutenak, testuaren adierazkortasuna, egokitasuna, originaltasuna kontuan harturik.
- Irakurriaren inguruko iritziak jakinarazi eta testu idatziak, irakurketaren ondorioz sortuak, zabaldu. Idazkiak eta irakurritako testuen eta liburuen inguruko iritziak partekatzeak ematen die benetako esanahia literatur testuei.



- Lankidetzan eraiki literatur testuen interpretazioa, literatura tertulien bidez, sormen tailerren bidez, sare sozialak erabiliz ... Proposamen horiek interakziorako baliabide ezin hobeak dira, besteak beste, irakurzaletasun zentzua eta esanahia emateko eta norberaren interpretazioa sakontzeko; horretaz gain, berdinen arteko elkarrizketa sustatzen dute. Testuen inguruko elkarrizketa honek informazioa analizatzen, kudeatzen, interpretatzen, balioesten eta zentzua ematen laguntzen du bai eta ezagutza berriak, modu kritikoan eta hausnarketaren bidez, eraikitzen ere.
- Ahozko eta ikus-entzunezko literatura testuak erabili. Literatur testuak entzutea (ikasleei testuak irakurtzea, profesionalei testuak errezitatzen edo kontatzen entzutea, antzerki lanak ikustea ...) irakurzaletasuna sustatzeko estrategia eraginkorra da eta behar-beharrezko jarduera emozioz eta sentimenduz jositako komunikazio-giroa sortzen baita...
- Irakurketa adierazkorra proposatu. Irakurketa honek bi funtzio betetzen ditu: bata estetiko eta bestea funtzionala. Ikasleak hizkuntzaren osagai ludikora eta estetikora hurbiltzeko balio du eta, aldi berean, ikasleen gaitasun diskurtsiboa garatzeko; izan ere irakurtzeko, entzuteko eta ahozko adierazpenerako trebetasunak hobetzen laguntzen du. Horretaz guztiaz gain, hitzaren sedukzio botere ikaragarria ikustarazten du.
- Formatu digitalak landu, hala nola, liburu interaktiboak, blog literarioak ... testuaren interpretazioa zabaltzen duen irakurketa hipertextuala eginez; honek, sarritan, beste irakurketa batzuk egitera bultzatzen du.
- Irudiak dituzten testuekin lan egin. Izan ere, irudiak garrantzi handia dauka gaur egun literatur testuetan, komunikazioaren eta kultura eta arte esparruetan bezala. Ikasleek, beraz, irudiak irakurtzen eta interpretatzen ikasi behar dute eta horiek testuekin dituzten erlazioak antzematen. Eleberri eta ipuin grafikoetan, esaterako, irudien bidez kontatzen da, testu idatziak irudiei laguntzen die eta gehienetan irudien informazioaren osagarri edota hura zabaltzeko erabili ohi da. Komikietan, berriz, irudiak eta testuak elkarri laguntzen diote. Olerki birtualetan, hitzak, testuak eta hizkiek eurek ere irudi gisa dute balioa eta, aldi berean, balio testuala dute; horretaz gain argazki, collage-kin batera aurkezten dira ikusizko eta testuaren bidezko adierazgarritasuna areagotzeko.

Nola irakurri eta entzun literatur testuak?

Literatur testuak irakurtzeko eta entzuteko hizkuntza-trebetasun horiek garatzeko ataletan aipatu diren estrategiak hartu behar dira kontuan.

Horretaz gain, ez da ahaztu behar literatur testuek ezaugarri linguistikoei, egiturari eta estetikari lotutako ezaugarri bereziak dituztela; eta, horregatik, aurretiazko ezagutzak abiaraztea eskatzen dutela, barnean gordetzen duten esanahia modu egokian ulertu eta interpretatu ahal izateko.

Ondoko grafikoetan literatur testuetara hurbiltzeko ereduak proposatzen dira:



5.14. Ebaluazioa

Ikasteko ahalmena oso estu lotuta dago auto-erregulatzeko ahalmenarekin, hau da, ikasketa-helburu bati begira jarduerak planifikatzen jakiteko ahalmenarekin. Horregatik, Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenaren, ikaskuntza aktiboaren eta ikasten ikasteko gaitasunaren ikuspuntutik, ebaluazioa, batez ere, auto-erregulatzeko jakitea da.

Ikasleek hizkuntzaren erabiltzaile gaituak izateko ondokoak kontrolatu behar dituzte:



- Helburua, hau da, egiten dutenaren xedea, zertarakoa.
- Hori guztia bideratzeko abiarazi behar den prozesuaren atalak, hurrenkera eta planifikazioa.
- Egiten dihardutena ondo betetzen ari diren ala ez jakiteko irizpideak.

Ebaluazioa auto-erregulaziotzat hartzeak eragin zuzenak ditu inguruan dituen alderdi guztietan.

Zer ebaluatu?

Hezkuntza etapa bakoitzerako hautatu diren hizkuntzaren erabilerak dira ebaluazioaren irizpide eta egiten jakitea da ebaluazioaren elementu erabakitzaila. Beraz, ikasleek erakutsi behar dute komunikazio-egoera bati modu eraginkorrez erantzuteko gauza direla: eskari gutuna idazteko, albiste baten esanahia eta zentzua ulertzeko, gai bati buruzko ahozko azalpena egiteko...

Ulermen eta ekoizpen prozesuen menderatze maila da ebaluazio jardueren gunea eta gunea, halaber, ikasleek izango duten kalifikazioarena. Kontzeptuzko prozedurak, ordea, osagarriak dira bai ebaluazioan bai kalifikazioan.

Zertarako ebaluatu?

Ikasleen aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzeko eta horien arabera prozesua aldatzeko, egokitzeko.

Noiz ebaluatu?

Ikaskuntzari eraginkortasunez ekiteko ebaluazioa sekuentzia didaktikoaren hasieran bertan agertu behar da. Beraz, hasierako ebaluazio jarduerak proposatu behar dira, unitatean zehar landuko duten testu-generoaren inguruan ikasleen zer dakiten jakiteko. Eta aurre-ezagutzak azaleratzeko.

Jarduera horiek galderen bidez planteatu daitezke, galdetegien bidez, gidatutako eztabaida baten bidez, aurre-testu bat idatziz... Hasierako ebaluazioak, beraz, balagarria izan behar du, behar izanez gero, lan-plana egokitzeko.

Ikaskuntzari begira, prozesuaren ebaluazioa da ebaluaziorik esanguratsuena eta prozesuan zehar azaltzen diren zailtasunak azpimarratu eta horiek bideratzeko balagarria delako. Beraz, sekuentzia didaktikoko jardura batzuk ebaluazio jardura gisa erabiltzea eskatzen du. Esaterako, testua planifikatzean eskemak egitea ebaluazio jardueratzat hartu daiteke eta hautatzean sortu diren arazoak zuzentzeko.

Era berean, zirriborroak idazteak ere hizkuntzari lotutako arazoak antzeman eta zuzentzeko aukera ematen du.

*Hasierako ebaluazioa.
Aurre ezagutzak*

Azken ebaluazioak edo ebaluazio sumatiboak lan-unitatean zehar egin den ikaskuntza egiaztatu eta erakusteko balio du. Forma desberdinak har ditzake (proba, galdetegia, testua...) eta beti erabili beharko litzateke prozesuan zehar jaso diren datuen eta behaketen osagarri.

Ikas unitateak amaitutakoan egin ohi diren probek ez dute laguntzen ikasten. Ikasitakoa egiaztatze baina ez dute balio eta hori ere ez beti. Gehienetan kontzeptuei eta oroimenari lotutako alderdiak ebaluatzen dituzte eta horiek ez dira oso esanguratsuak hizkuntzaren erabilera hobetzeko.

Nork ebaluatu behar du?

Ikasgeletan irakaslea izan ohi da ebaluatzailea eta ikaslea ebaluatua... Ikuspegi komunikatiboak baina ebaluatzailearen eta ebaluatuaren rolen dibertsifikazioa eskatzen du.

Funtsezkoa da ikasleek apurka-apurka beren idatzizko eta ahozko ekoizpenen kontrola hartzea. Antzeman egin behar dituzte zailtasunak eta akatsak eta ikasi egin behar dute nola zuzendu, nola bideratu. Horregatik, ebaluazio zereginetan eta ebaluazio prozeduran, gero eta esku-hartze handiagoa izan behar dute.

Ebaluazio-irizpide zehatz eta argietatik abiatuta, komunikazio-proiektuaren bukaeran ez ezik prozesuan zehar ere auto-ebaluazio eta ko-ebaluazio txantiloiak bete ditzakete ikasleek.

Halaber, ikasleek, sekuentzia didaktikoaren amaieran, gauzatu duten prozesuaren inguruko hausnarketan hartu behar dute parte eta prozesuaren ebaluazio-txantiloiak erabil. Txantiloia horietan, besteak beste, jardueren planteamenduari eta jaso duten laguntzari buruzko galderak eta egindako lanaren alderdi positiboen eta negatiboen ingurukoak... egingo zaizkie.

Nola ebaluatu?

Ondo berezi behar dira ebaluazio-irizpideak eta kalifikazio-irizpideak. Ebaluazio-irizpideetan ikaskuntza unitate bakoitzerako edo ikasturte osorako lortu nahi diren helburuei lotutako alderdi esanguratsuak hautatzen dira. Kalifikazio-irizpideetan berriz, erabili den ebaluazio-tresna bakoitzari (jarduerak, testuen laginak, probak, koadernoak, portafolioa ...) eman zaion puntuazio portzentajeari lotutako akordioak jasotzen dira.

Ebaluazio prozesu guztiak ebaluazio-irizpideen eta horien adierazle zehatz eta argien arabera egin behar dira; izan ere, horiek emango diete zentzua ikasleek lortuko duten kalifikazioari edo egingo zaizkien oharrei.

Curriculumarekiko lotura eta koherentziarik handiena lortzeko, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak hizkuntza irakasleek elkarrekin hausnartu eta hartutako erabakien emaitzak izan behar dira eta gehienak testuen ulermen eta ekoizpenari lotuta egon.

Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak jakinarazi egin behar dira eta ikasgaien programazioan adierazi bai familiek bai ikasleek ezagut ditzaten.

Ebaluazio-tresnak bai irakasleak bai ikasleek ikas-prozesuaren garapenaren berri izateko erabiltzen dituzten baliabideak dira. Tresna bat edo beste hautatzea, bereziki, ikaskuntzaren helburuei lotuta dago.

Horrenbestez, ebaluazio-tresnak askotarikoak izan behar dira eta ikasleen ahozko eta idatzizko testuen ekoizpen kopuru nahikoa jasotzeko aukera eman behar dute ikasleen aurrerapenen eta zailtasunen berri zehatza izateko. Zentzu honetan, portafolioa ezinbesteko ebaluazio tresnatzat jotzen da.

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?
 - Argudio-testuen ezaugarriak
 - Kexa-gutun formalaren ezaugarriak
 - Tesia eta gaia bereiztea
 - Argudio-motak
 - Testua kohesionatzeko baliabideak
 - Modalizazio-markak
 - ...
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zein jarduera kostatu zaizkizu gehien?
4. Zein jarduera kenduko zenituzke?
5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu.
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez eguneroko bizitzarako baliagarriak diren edukiak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea? (81etik 10era)
 - Unitatearen edukiak:
 - Erabilitako metodologia:
 - Erabilitako materialak:
 - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?
Iradokizunak:

*Unitatearen ebaluazioa
Ikas prozesuaren ebaluazioa*



6. BALIABIAD E DIDAKTIKO HAUTATUAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berriztatze Saila. Hizkuntzen Tratatua Bateratua programako unitate didaktikoak.

<http://trataerabateratura.wordpress.com>

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berriztatze Saila Oinarrizko Gaitasunak: materialak eta ereduak. Sekuentzia didaktikoak Oinarrizko Gaitasunak garatzen laguntzeko (DBH)

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/orientaciones_materiales_ayuda_e.html

Zenbait sekuentzia didaktiko:

- XXI. mendearen erronkak. Gizarte zientzietako eta hizkuntza edukiak era bateratuan lantzeko unitate didaktikoa.

<http://elsigloveintiuno.wordpress.com/>

<http://bloggeandolenguas.com/diversificacion/eronkak.pdf>

- Una secuencia didáctica sobre Antonio Machado

<http://amachado.wordpress.com/>

- Gazteak eta Administrazioa. Gazteak instituzioekiko harremanetan idatzi behar dituzten dokumentuak, hala nola eskabideak, erreklamazioak... gauzatzeko proposamen didaktikoa.

<http://www.debagoiena.com/ldatziak/ikasleak>

- Irakurriz Ikasi. Abel Camachok irakurmena lantzeko proposatzen dituen sekuentzia laburrak. DBH4 mailan erabilgarriak.

http://www.buruxkak.org/pdf/110_IrakurrizIKASI.pdf

- Ahozko azalpena nola programatu.

<http://dpto.educacion.navarra.es/planesdemejora/dok/1lehen/orientabideak/1-3-ahozkoazalpen.doc>

Webquestak. IKTak eta hizkuntzak uztarturik, ikasleek burutu behar dituzten lan-proiektuak, informazio-iturri gisa, nagusiki, Internet erabiltzen dituztenak.

- Euskararako webquestak

<http://sites.google.com/site/wqikastaroa0809/>

- Hizkuntza alorreko edukiak lantzeko Webquestak:

<http://www.saretik.net/forowq>

- Webquest Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ikuspegitik

<http://www.saretik.net/ticlenguas/>

Material didaktiko anitzen webguneak. Euskara eta Literatura eta Lengua Castellana y Literatura ikasgaiak lantzeko. Ordiziako Jakintza ikastolako Maite Goñi irakasleak eta L. Domenech-ek, hurrenez hurren, sortu eta kudeatutakoak. Oso erabilgarriak eta material ugariz hornituak.

<http://euskaljakintza.com>.

<http://www.materialesdelengua.org/>

7. BIBLIOGRAFIA GOMENDATUA

BORDONS, G. (COORD.), DÍAZ-P, A. (2006), *Enseñar literatura en secundaria: la formación de lectores críticos*. Bartzelona: Graó.

CASSANY, D. (1993, Reimpresión 2004), *Reparar la escritura. Didáctica de la corrección de lo escrito*. Bartzelona: Graó.

CASSANY, D. (2006), *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea*. Barcelona: Anagrama (Argumentos, 341).

EGILE ANITZ (2006), *Enseñar literatura en secundaria. La formación de lectores críticos, motivados y cultos*. Bartzelona: Graó 214.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO SAILA (2009). *Oinarrizko Gaitasunak EAEko Hezkuntza-Sisteman. Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna. Orientabideak.*

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/orientaciones_materiales_ayuda_e.html

GARCÍA ANDRÉS. M.A (2008), *Irakurtzea eta idaztea interneten garaian.* Nafarroako Gobernua.

http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/BLITZa_mar11eusk.pdf

JIMENO, P. (2004), *Idazmenaren irakaskuntza curriculumeko arlo guztietan.* Nafarroako Gobernua.

[http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/escrituraeusk.pdf /](http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/escrituraeusk.pdf/)

LOMAS, C., OSORO, A., TUSÓN, A. (1997), *Ciencias del lenguaje, competencia comunicativa y enseñanza de la lengua.* Bartzelona: Paidós.

MARTÍNEZ MONGAY, A. (2004), *Nola prestatu ahozko azalpena Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan.* Nafarroako Gobernua.

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/blitznaranjaeusk.pdf>

MORENO, V. (2008), *Dale que dale a la lengua. Tomo I. Propuestas para hablar y escribir textos narrativos y descriptivos,* Navarra: Pamiela

Dale que dale a la lengua. Tomo II: Propuesta para hablar y escribir textos expositivos, argumentativos, instructivos y lúdicos, Navarra: Pamiela.

NAFARROAKO GOBERNUA. (2009). *Komunikazio Gaitasuna. Testu idatzien ekoizpena. Zuzenketarako orientabideak.*

http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/47/47334_ESO2_Correccion_de_textos_escritos_EUSK.pdf

PÉREZ ESTEVE, P. eta ZAYAS, F. (2007) *Competencia en Comunicación Lingüística,* Madril: Alianza Editorial.

SAINZ, M. (2001), *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika.* Donostia: Erein

VILÁ, M. (COORD.) (2005), *El discurso oral formal.* Bartzelona: Grão (sarean ere topa daiteke).

ZABALA, A. eta ARNAU, L. (2007), *11 ideas clave: Cómo aprender y enseñar competencias.* Bartzelona: Graó.

2010eko maiatza